

«Basetxea gogorragoa izango zela uste nuen»

Unai Asurmendik aurtengo "Basetxea" telebista saioan parte hartu du. 26 urteko auzotarrak sei egun eman zituen Iزابako Kaxao bordan eta egun horietako bizipenez mintzatu zaigu.

Xabier Etxabe

Zerk bultzatu zintuen Basetxean parte hartzera?

Aurtengoa gogorra eta latza izango zela iragarri zuten eta

nik ezagutzen ez nituen zenbait lagunekin gorriak eta bi pasatzea nahi nuen. Dena dela, ekintza eta erronka gehiago espero nituen. Telebistan saioaren irudi epikoa zabaldu

dute, baina ez da hainbestera. Hala ere, zorte piska bat ere izan nuen, bordan emandako egunetan eguraldi ona izan genuelako eta gainera, beste lehiakide batzuek ez bezala, egunero izan nuen jatekoa.

Sei egun bordan egon eta gero, kanporatu zintuzten. Etxera bueltatzerakoan, nola ikusi zenuen zure burua telebistan?

Zur eta lur geratu naiz. Izan ere, gidoi bat dago idatzita eta saioko arduradunek gidoi horren inguruan istorio bat sortzen dute, bideo-muntaketa eginez. Bizipenak testuingurutik ateratzen dituzte eta irakurketa faltsuak eragiten dituzte ikusleengan. Grabazio orduak oso gutxi ziren eta hitz egiten duzunaren erdia ere ez dute telebistan ematen.

Zer iruditu zitzaizkizun egin ohi diren talde eta buruz buruko probak?

Buruz burukoa edo dueloa


Egunkariaren aldeko mahaia Bernat Etxeparen

Igande eguerdian, auzoko Egunkariaren aldeko herri batzordeak mahaia jarriko du Bernat Etxepare plazan. Ohi bezala, Egunkariako pizgailuak, pinak edota bono laguntzak egongo dira salgai eta Eguneroko harpidetzak ere egin ahal izango dira. Nabarmentzekoa da, halaber, joan den ostegunean, Kontselluko Idazkari nagusi Xabier Mendigurenek eta Egunkariako langile Milke Arrietak hitzaldia eman zutela auzoko ikastolan.

irabaztea, batik bat, zorte kontua da. Talde probak, bestalde, ez zitzaizkidan oso gogorrak iruditu.

Une larriren bat pairatuko zenuen, ezta?

Raftingean, kanoan ibaian behera, oso gaizki pasatu nuen, sekulako ahalegina egin nuen eta. Egindako lanak ez zuen askorako balio izan, arduradunek lehiakide guztiak ur jauzira parean iritsi behar genuela adostu zutelako. Nekeaz gain, zer nolako amorrua!



Josune Mtz. de Albeniz

IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK



Askatasunaren hiribidea, 7 - 4. F
Tel.: (943) 42 41 21 • 20004 DONOSTIA

PARMA hotela
Itsaso aurrean.
Bainua, berogailua, telebista eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: 943 42 80 19

BLIS BLOCH

Arrandegi kalea 4 eta 12 • DONOSTIA • Tel.: 943 425267